

noaua



Txaramuntoko alokairuko etxebizitzak, zozketara

Herri bideak zigortzen jarraitzen dute azken aldiko euriteek

Gero eta gehiago dira Errenta Aitorpena euskaraz egiten duten herritarrak

Esther Arrojeria

“Emakumeek hedabideetan ateratzeko, badirudi zerbait irabazi behar dutela”



Kentuene

JATETXEA

Sagalxipi baserria, 23
20170 Usurbil · Gipuzkoa ·
Tlf: 943 361 127 · Fax: 943 373 317
www.kentuene.com

Angel eta Arantxak, Oihana, Maider eta Iñaki beraien hiru seme-alabekin batera, lagun eta bezeroei hemendik aurrera beraien Usurbilgo jatetxea **Kentuene** izatera pasatuko dela komunikatu nahi diete.

Izen berriak, 300 urte baino gehiagoko historia duen baserrian, **gure haztegitiko txangurru onenak** eskeintzen dituen bizitza baten historia batzen du.

Gure etxea zuena izaten jarraituko du.

Añorga Unanue familia



Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



**12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi,**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Batukada feministaren debuta, Gure Esku Dago Egunean



Martxoaren 22ko giro goibelari erritmoa eta kolorea jarri zioten, urte hasieratik Zumarte Musika Eskolan biltzen den herriko emakume taldeak. Inguruko tabernetan

poteatzen zebiltzan herritarrek erakarri zituen, batukada feministak taldekoentzat jendaurreko debuta izan zen saioak. Adin desberdinetako herriko neska eta emakume talde anitza dugu,

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saitetik eginko deialdiari erantzunez, urtarrila amaieran Zumarte Musika Eskolan abiatu zen ikastaroan parte hartzen ari dena.

Laburrean

Santixabeletako Jai Batzordearen bilera, martxoaren 31n

Martxoaren 31n astelehena egingo da Jai Batzordearen bilera berri bat, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Aurtengoan, Santixabel jaiak, uztailaren 1etik 6ra ospatuko dira.

Afrikarako oinetako eta arropa bilketa, Udarregi Ikastolan

Martxoaren 31ra arte batuko dira ikastolako erdiko aretoan. Modu honetan, bat egin du Udarregi ikastolak, SOS Afrika Gobernu Kanpoko Erakundea bideratzen ari den elkartean ekimenarekin.

Aste Santuan, txokoak antolatu dituzte Aginagan

Apirilaren 14, 16, 17, 22, 23, 24 eta 25ean. Sarrera: 9:00-10:00 Irteera: 13:00. Prezioa: 25 euro (San Praixku elkarteontzat 15 euro). Izena ematea: 637332402 (Naiara), apirilaren 3a baino lehen.

noa.ua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noa.ua.com // www.noa.ua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noa.ua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noa.ua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza, Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Joxe Piñas

Baratzak, 10.000 urtez

Udaberria iritsi da, egunak luzatzen ari dira eta hemendik aurrera eguzkiak gehiago berotuko du, giroa epelduko du eta hurrengo hilabeteetan neguko egun hotzak ahaztuko ditugu. Lurra ere epeltzen hasiko da, hezetasuna galduko du, airean eta lurrean landareak eta zuhaitzak berriro berpizteko sortuko da giroa; sustraiak errotuz eta hostoak ernaberrituz.

Gizakia honetaz aspaldian konturatu zen, eta elikagaiak biltzeaz gain lurretik nahi zituen fruituak lortzeko bera prestatzen eta landatzen hasi zen ere bai. Horrela sortu zen nekazaritza, "lurraren kultura". Eta horrela sortu ziren baratzak, orain dela 10.000 urte gutxigorabehera.

Usurbilen, pasa den astean zen-

bait pertsona bere baratzeko lurrak arrotzen, ongarrria gora eta behera eramaten... ikusi ahal izan genuen. Gaur egun herrian lan horretan pertsona ezberdinek dihardute: betiko baserritarrek, oraingo kalekumee, gazteek, helduek, gizonak, emakumeek,... geroz eta jende gehiago ikusten da.

Akaso baten batek, baratza lantzea moda kontua dela pentsatuko du. Oker dabil: gehienaz azkeneko belaunaldiak ez dio eutsi kultura honi. Ez al ziren ba gure gurusoak edota aiton-amonak nekazariak? Esan bezala, "moda" izatekotan 10.000 urte edukiko lituzke. Gizarte honetan azkarregi galtzen da perspektiba historikoa eta benetazko salbuespenari erraz deitzen dio-

gu ohitura.

Beste batzuek diote krisiagatik jende gehiagok diharduela baratzan; denbora libre gehiago dagoelako eta era berean hortan dabilenak egoera ekonomikoa baretu dezakeelako. Arrazoietan ere ez dira falta elikagai-ekoizpenaren ezaugarriak jakin nahia edota norberak bere baratzak ekoizteagatik sortzen den poztasuna horretaz gozatzea.

Arrazoi politiko-sozialak ere badaude: higiezin espekulaziorako erabili den lur abandonatu hori berreskuratzea edota lur publikoa zen hura berreskuratu eta nekazaritzarako erabiltzea. Lurra okupatzea baratzak lantzeko ez da gaur egungo kontua. Hala nola denok gogoratu dugu Txaramuntoko etxebizi-

tzak eraiki aurretik "baratza okupaz" beterik zegoela lur hura. Higiezin espekulazioaren krisia bizi dugunetik, erakunde publiko zein enpresa pribatuek lurraren gain presioa arindu dute eta baratz gehiago lantzen dira ere bai.

Antzinan herri antolaketa lur komunalak baziren; herri-lurra herrien eta herritarren nahiak eta gosea asetzeko baliabidea zen. Nola berreskuratu daiteke politika publiko aktiboa, nekazaritza arloan esate baterako, hainbeste lur publikoa etxebizitzak egiteko pribatizatu ostean? Nola balioztatu lurra berriro bere benetazko prezioan? Erronka honi irtenbidea emateko jarrai dezagun gutxienez beste 10.000 urtez lurra zopizartzen.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

LOMCE-ren aurkako greba eguna ikasleek, ostegunean

Ikasle Abertzaleak-ek ostegunerako, martxoaren 27rako deitu duen greba orokorrarekin bat egingo dute Usurbilgo ikasleek. "Rajoy, Wert eta enparauek inposatu nahi diguten LOMCE" legearen aurka eta hezkuntza eredu propio baten alde mobilizatuko dira.

Usurbilgo Ikasle Abertzaleak hainbat ekimen bideratuko ditu greba egunerako; elkarretaratzea, hitzaldi-tailerra, manifestazioa... Ikasleen mugimenduaren esanetan, hezkuntza araudi berria, "gure hezkuntza sistema propioaren aurka doa. Hain zuzen ere, kapitalismoaren, espainiar zein frantziar estatuen eta patriarkatuaren mesedetan dauden erreforma hauekin klase, nazio eta genero zapalkuntzetan sakontzea dute helburu, ikaslearen interesen kontra kokatuz. Ez ditugu ikaslearen eta oro har herritarren kontra doazen hezkuntza erreformak onartuko, ezta gaur egungo hezkuntza eredu ustela ere".

"Euskal Eskola Nazionalari ekingo diogu"

Gaineratzen dutenez, "honen aurrean, Euskal Herriko ikasleria kalera aterako gara, indar guzti honekin, ikasle borrokan fase berri baten irekiera beharrezkoa baita. Ikasleok gaurdanik Euskal Herriak behar eta nahi duen hezkuntza eredu propioa eraikitzen hasteko bidea hartuko dugu. Geroa marrazteari ekingo diogu. Euskal Eskola Nazionalari ekingo diogu".

Martxoak 27, osteguna

8:30 Gosaria (Udarregi Ikastolako erdiko aretoan edo frontoian).
9:30 LOMCEren aurkako bizikleta martxa zaratatsua herritik.
10:30 LOMCEren inguruko hitzalditailerra.
12:15 Elkarretaratzea, Udarregi Ikastolako atarian.
16:00 Mural margoketa.
19:00 Eskualdeko manifestazioa Lasarte-Orian.
Deitzailea: Usurbilgo Ikasle Abertzaleak.

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Zuen publizitatea hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noaia.com

Txaramuntoko alokairuko etxebizitzak, zozketara



Guztiak bi logelako pisuak dira, bere aparkalekuarekin.

Jada martxan den esleipen prozesu honetako oinarriak, martxoaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontsultatu ditzakezue. Iragan larunbatz geroztik, martxoaren 22tik zenbatzen hasita, apirilaren 10era arteko tarteak dute interesdunek, Usurbilgo Udaleko erregistrora joan eta eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko. Eskabide orriak eta oinarrien inguruko informazioa udal erregistroan jaso daitezke.

San Inazioko errotonda eta bus geltoki ondoan kokatua dagoen Txaramunto, 2 eraikineko etxebizitzak dira esleituko direnak. "Udal jabetzako 12 etxebizitza, bere garajeekin", herrialde mailako aldizkari ofizialak jasotzen duenez. Eraikinak 3 bizileku ditu beheko solairuan, hiruna lehen bi solairuetan eta beste hiru atikoan. Guztiak bi logelako pisuak dira, 40 eta 59 metro karratu artekoak, bakoitza bere aparkalekuarekin.

8 pisu zozketan

12 bizilekuotatik zortzi dira esleituko direnak hasiera batean, beste laurak okupatuta baitaude. "Libre geratzen direnean berriro esleituko dira, horretarako oinarri hauen arabera osatuko diren itxarote-zerrendak erabiliz", hala diote Usurbilgo Udalak kaleratu dituen oinarriek. Alokairu kontratuen iraupena urtebetekoa izango da, bost urtera arte luzagarria. Edozein kasutan, urtez urte berrikusiko da. Ordaindu beharreko kuota, eskatzaile bakoitzaren diru-sarreraren menpe egongo da, eta urtero berraztertuko da.

Esleipen prozesua, pausoz pauso

- Eskabideak aurkezteko 20 egun, martxoaren 22tik apirilaren 10era.
- Eskariak aztertu ostean, behin behineko onartu

8 PISU ZOZKETATUKO DIRA

"Alokairu kontratuen iraupena gutxienez urtebetekoa izango da, bost urtera arte luzagarri. Edozein kasutan, urtez urte berrikusiko da"

eta baztertuen zerrendak argitaratuko ditu Udalak.

- Segidan, 10 lan egunez jendaurrean ikusgai jarriko dira zerrendok. Tarte horretan, alegazioak aurkezteko aukera.
- Alegazioei erantzun eta behin behineko zerrenda, behin betiko onartuko du Udalak.
- Etxebizitzak zozketa bidez esleituko dira, kupoka.
- Zozketa egin ostean, gainerako eskabideekin, itxarote zerrendak osatuko dira.

Zozketarako kupokak

Kupoka zozketatuko dira etxebizitzak. Kupok hauek ondoko lehentasun-hurrenkera izango dute:

- Ezinduak: etxebizitza bat.
- Etxebizitza premia berezia duten eskatzaileak: adimen edo garapen-desgaitasuna dutenak, gerora sortutako ordaintzeko ezinagatik ohiko etxebizitza jabetza galdu dutenak, genero-indarkeriaren biktima direnak, 70 urtetik gorako pertsonak, bananduak, dibortziatuak eta alargunak. 3 etxebizitza.
- Etxebizitza premia duten eskatzaile edo bizikidetzak-unitate espezifikoak: beren kargura adin txiki-koak dituzten guraso bakarrek bizikidetzak-unitateak eta 30 urtetik beherakoak. 3 etxebizitza.
- Kupo orokorra: aurreko kupoetarako gordetzen ez diren etxebizitzek osatuko dute. Etxebizitza bat gutxienez.

Herri bideak zigortzen jarraitzen dute, azken aldiko euriteek

Negu gogorra izan dugu aurten, euriteek inguruotan zenbait eraikin eta herri bide kaltetu dituzte bereziki. Egoera honen aurrean, Usurbilgo Udalak hainbat konponketa bideratu behar izan ditu azken hilabete hauetan. Bi herri bide bere onera ekartzeko lanei ekin berri diote orain; lartza-Larbain eta Urkamendi-Txantxon artekoak. Derrigorrean egin beharreko obrak direla berri eman du Udalak, denentzako onuragarri suertatuko direla, eta lanek eragingo dituzten eragozpenak ahalik eta lasterren amaituko direla espero dute.

Kalteek, arriskutsu bihurtu dituzte bideak

"Iartzatik Larbain aldera doan bidea, hormigoizko pistaz osatuta dago eta aspalditik zati bat zartatuta egon arren, nahiko egoera egonkor batean mantendu da. Azken boladan egindako euriteek ordea, zartatutako zatiak behera egin du eta bidearen egonkortasuna arriskuan geratu da. Gertakari honek bidea konpontzeko premian utzi du eta Udalak lehentasuna eman nahi izan dio. Bergaretxe enpresak gauzatuko ditu lanak eta guztiaren aurrekontua 17.154 euro da. Konponketak hasita daude eta aurreikusten da aste betean amaituta izango direla. Bitartean Larbain baserriak, Troiako Nekazalurtismoak eta inguruko lur jabeek, Usasku ingurutik izango dute sarbidea", ohartarazi dute Usurbilgo Udaletik.

Urkamendi eta Txantxon arteko bidean, "berriki egin diren lanak amaituta zeuden baina, azken euriteek sortu dute urak bide azpitik bideratzea, eta bidea oraindik arriskuan egon litekeela ikusirik, beste obra osagarria egin behar da bidea erabat sendotzeko. Lan hauek ere hasi dira eta Bergaretxe enpresari adjudikatu zaizkio eta gutxira 15.019,17 euro da aurrekontua", berri eman du usurbil.net web orriak.



Otsaila hasieran lurjausia izan zen Urkamendi eta Imindos lotzen dituen bide ondoan.

Salatuak, euskara normaltzearen alde lan egitegatik



Estatuko abokatuak 26 udal eta erakunderi errekerimenduak bidali dizkie.

az, Gipuzkoako 11 udal salatu zituen Estatu-ko abokatuak eta aurren, 26 udal eta erakunderi errekerimenduak bidali dizkie, kontratazio publikoetan euskara normaltzearen aldeko hizkuntz irizpideak ezartzeagatik. Errekerimenduren bat jaso duten erakundeei, euskararen normaltzea sustatu asmo duten hizkuntza irizpideak bertan behera uztea eskatzen zaie.

Auzibidean jarri dituzten erakundeok gogor salatu dute espainiar estatuaren jarrera, iragan astean jendaurrean eman zuten erantzun bateratuaren bidez. Euskaldunak espainieraz bizitzera behartu nahi dituztela adierazi dute, euskara galtzea dela azken helburua.

Euskararen aurka duten "herra eta tema" amaiteza eta "Gipuzkoako herritarrak eta erakundeak errespetatzea" eskatzen diote espainiar estatuari. Orain arteko bideari jarraitzeko asmoa erakutsi dute Gipuzkoako erakunde guztiok, "euskaraz bizitzeko behar ditugun neurriak adostu, erabaki eta ezarriko ditugu aurrerantzean ere".

"Gure eskubideen aurkako inposizio onartezina da"

Jaurlaritza, eragile sozial eta politikoak elkarlana deitzen dituzte; euskararen garapen osoa ahalbide-tuko duen adostasuna lortzeko. "Instituzioen ekimen zilegiaren aurka egin du estatu espainiarrak, oldarkor. Euskararen ofizialtasuna praktikan jartzea oztopatu nahi du, normaltasunez aritzea zaildu. Estatu espainiarraren erasoak eragiten digu euskaraz bizitzeko hautua egin dugun instituzioi eta euskaldun guztioi; gure eskubideen aurkako inposizio onartezina da", Zigor Etxeburua Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako zuzendariarentzat.

Foru Aldundia ere, begipuntuan

Diputazioari ere kontratu-erako finkatuak dauden hizkuntz irizpideak bertan behera uztea agindu dio Espainiako Gobernuak ordezkaritzak. Foru Aldundiak auzibidean diren udalei elkartasun eta babesa adierazi diote. Baita Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere.

Santixabelak lantzen jarraitzeko hitzordu berria, martxoaren 31n

Jai Batzordearen bilera astelehenean, martxoak 31, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Jaietako prestaketa lanak lotzen jarraituko dute Jai Batzordeko kideek. Santixabelak aurren, uztailearen 1etik 6ra. Laster gainera, festetako egitarau diseinu lehiaketan parte hartu eta txupinazorako proposamenak biltzeko deialdi bana egitekoak dira herritarrei.



Datorren astelehenean egingo da bilera, 18:00etan Potxoenean.

Autobus zerbitzua hobetzeko bilera

Gipuzkoako Foru Aldundiak urrian abiatutako parte hartze prozesuaren baitan kokatzen den bigarren faseari loturiko saioa, apirilaren 7an, 18:30ean Potxoenean. 3.000 gipuzkoarrek baino gehiagok, usurbildarrek tartean, lehen fasean eginitako ekarpenen %75arekin osaturiko aurreproiektua aurkeztuko du Diputazioak, hemen eta beste 55 udalerrietan. Prest dute aurreproiektu honen inguruko herritarren iritzia biltzea da datorren bilkuren helburu nagusia.



Aurreproiektua prest du Diputazioak eta apirilaren 7an aurkeztuko du Usurbilen.

 **Kima** 
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

USURBIL AUTOAK
· TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA
 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**
zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea  943 36 10 79

Usurbil, gaikako bilketan aitzindari eta aurreratuen

Usurbilen atez ateko bilketa sistema abiatu zela 5 urte bete diren egunotan aurkeztu du San Marko Mankomunitateak, 2013ko hondakinen kudeaketari loturiko balantzea, etxeko lan ugari egiteke dagoela islatzen dituen emaitzak. Usurbil, Lasarte, Hernani, Urnieta, Donostia, Astigarraga, Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzun biltzen dituen erakundearen gaikako bilketa udalerrri honetan dugun ehunekoaren oso azpitik baita. 2013an, San Markon %36,3koa zen gaikako bilketa, bildutako %63,7 erreusa.

Beste datu bat; 2007tik 2013ra, sei urteko tartean beraz, San Markoko hiri hondakinen gaikako bilketa %27,70etik %36,30era igo da. %9 inguru. Usurbilgo datuetatik oso urrun. Gogoan izan, sistema aldaketari esker, udalerrri honetan hondakinen %28 birziklatzetik %82a birziklatzera igaro ginen. Guztia, ohitura aldaketa batekin, eta epe laburrean.

Hondakin zatika, nabarmen geratzen da baita, atez ateko bilketa sistemak mankomunitate mailako datuetan duen eragina. Iaz, 4.911 tona organiko bildu ziren San Markon. Hortik, hiru laurdenak, 3.699 tona (%75,4) atez ateko bilketa sistema martxan den bost udale-



Aurreko astean eskaini zituzten datuak San Marko Mankomunitateko egoitzan.

rrietan. Hau da, Usurbilen, Hernanin, Oiartzunen, Lezon eta Astigarragan. Gainerako 1.212 tona (%24,6), edukiontzien bidez bildu zuten Urnietan, eta Donostiako Amara eta Gros auzoetan.

Atez atekoa gailentzen da, edukiontzien aurrean

Beste hondakin zatien bilketa datuei erreparatuta ere, gauza bera gertatzen da. Mankomunitateko egungo arduradunek "ranking" moduko bat egin dute, San Markoko 10 udalerriek. 2013an, kiloko, biztanleko eta urteko gaikako bilketa zenbaterako izan den kalkulatu dute. Zerrenda horietan, lehen postuetan dira atez ateko bilketa sistema indarrean dute udalerrriak. Batz bestekoan, lehen postuan Usurbil, 137,9 kilogramo, biztanle eta urteko. Eta

atzetik ditu hurrenez hurren, Oiartzun, Pasaia edota Astigarraga.

Datuak hondakin zatika aztertzen baditugu, kilogramo, biztanle eta urteko, Usurbil ere lehen postuan sailkatua dago, organikoaren, paper eta kartoia- ren eta ontzi arinen bilketan. Hamarretik hirugarren postuan, beiraren bilketan. Oro har, sailkapenaren goialdean baita, atez ateko bilketa sistema funtzionamenduan duten Hernani, Astigarraga, Lezo eta Oiartzun. San Marko Mankomunitatearen batz bestekoaren gainera. Atzetik, gainerako udalerrriak.

Segidan, balantze honen hainbat datu. Aipatzekoa da, San Markoko balantzeak ez dituela Garbiguneetako datuak jasotzen. Udalerriko gaikako bilketa datuen ehuneko orokor- rarak ere falta ditu.

"Eredu jasagarri bat eraikitzeko lehen harria", Usurbilgoa

Hitzokin laburbiltzen du Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduak, berriki bost urte bete dituen Usurbilgo atez ateko bilketa martxan jartzeak suposatzen zuena, 2009ko martxoaren 16tik aurrera. Gerora, udalerrri honek hasitako ibilbidera batu baitziren udalerrri gehiago, Hernani, Oiartzun edo Antzuola tartean.

Gaikako bilketa kontuetan aitzindari dugun udalerrri honek zabalduetako bideak egin du gaur GZZ-koen esanetan, "Gipuzkoa, hondakinen kudeaketan, Europako eta munduko Zero Zabor mugimenduaren erreferente nagusietakoa" izatea.

Usurbilgo PSE-EEk gogor kritikatu du irakurgailu optikoen erabilera

Hondakinak dagokien tokira jaisten ez dituzten bizilagunak detektatzeko sistema bat jarriko omen da martxan eta Usurbilgo PSE-EEren ustez, obsesiora gerturatzen dira horrelakoak. "Zaborra beste herri batzuetara zergatik eramaten den galdetu ordez, edota atez atekoaren aurka protesta egin eta 5. edukiontzia eskatzen dutenei entzun ordez, isunak ipintzera mugatu da", NOAUA!ra igorri duen oharrean diotenez. Era honetako kontrolak herri borondatean konfiantzarik ez duen bestelako sistema politikoen eredu direla dio PSE-EEk. Gipuzkoa ere bide beretik doala ikusirik, "herriaren alde baino herriaren kontra gobernatzen dute."

San Marko, 2013ko datuak

Gaikako bilketa: 43.432 tona (%36,3).

Erreusa: 76.184 (%63,7).

Guztira: 119.616 tona.

Bilketa, kilo, biztanle, urteko:

Gaikako bilketa: 133,56.

Autokonpostatzea: 4,96.

Erreusa: 243,98.

Guztira: 382,50.

Bilketa, materialaren arabera:

Papera eta kartoia: 13.712 tona (%32).

Beira: 10.500 tona (%25,1).

Ontzi arinak: 6.559 tona (%15,7).

Materia organikoa: 4.911 tona (%11,7).

Besteak (tamaina handiko tresnak, pilak, ehuna, olio...): 6.201 tona (%14,8).

Guztira: 41.883 tona.

Hondakinen bilketa sistemaren arabera:

Edukiontzietan:

Papera kartoia: %78,30.

Beira: %85,60.

Ontzi arinak: %82,30.

Besteak: %100.

Zati organikoaren bilketa:

Gaikako bilketa osoaren (41.883 tona) %11,7, 4.911 tona.

Usurbil, Hernani, Oiartzun, Lezo eta Astigarragan, atez ate bildutakoa: 3.699 tona (%75,4).

Urnieta, Amara eta Grosen, edukiontzietan bildukoa: 1.212 tona. (%24,6).

Gaika bildutako kilogramoak batz beste, pertsona, urteko:

Usurbil: 137,9.

Oiartzun: 131,5.

Pasaia: 129,24.

Astigarraga: 125,89.

Donostia: 123,29.

Urnieta: 119,43.

Lasarte: 118,24.

San Marko: 117,84.

Lezo: 113,63.

Hernani: 113.

Errenteria: 104,6.

* Iturria: San Marko mankomunitatea

Errenta aitorpena, euskaraz egiteko gonbita

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENAK APIRILAREN 7TIK AURRERA ONARTU AHAL IZANGO DIRA

O gasunarekin iazko diru kontuak argitzeko unea ate joka dugu. Apirilaren 7an abiatuko da 2013ko Errenta Aitorpenari loturiko kanpaina. Usurbilgo Udalak diru kontuak euskaraz argitzeko gonbita luzatzen die herritarrei. UEMA eta Buruntzaldeko beste udalekin batera, beste urtez batez, alor honetan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina abiatu du. Egitasmo honek, bere baitan hartzen ditu herritarrak, erakundeak eta banke txex zein artezkaritza zerbitzuak eskaintzen dituzten guneak. Tokiotara egitasmo honetan parte hartzera gonbidatzeko gutunak bidaliko ditu Udalak.



Informazio gehiago zabaldu asmoz, esku orriak banatuko ditu udalak etxex etxe.

Eta herritarrek gai honi buruzko behar beste informazio eskura izan dezaten, etxeetara errenta aitorpena euskaraz egiteko esku orriak banatuko dituzte.

Harremanak euskalduntzeko aukera

Datozen asteotan autolikidazio proposamena jasoko duzuenok, Internet bidez onarpena ematerakoan, adi, laukitxo batean klik eginda, aurrerantzean Ogasunarekiko hartu emanak euskaraz edo erdaraz izatea nahi duzuen, hautatu ahal duzue eta.

Autolikidazio proposamenak apirilaren 7tik aurrera onartu ahalko dituzue.

GORANZKO JOERAN

**“2009 urtean,
544 usurbildarrek
egin zuten aitorpena
euskaraz, 635ek 2011n
eta 681ek 2012an”**

Euskararen erabilera, mantso baina gorantz

Errenta Aitorpena euskaraz egitea erabakitzen duen herritar kopurua gorantz doa azken urteotan. Buruntzaldeko udalek bilduko datuen arabera, 2009koa 544 usurbildarrek egin zuten euskaraz, 635ek 2011koa eta 681ek 2012koa. Urteko 3.300-3.400 herritarrek

errenta aitorpen egin dutela aintzakotzat hartuta, zifra baxuak dira, baina pixkanaka gorantz doazenak.

Ehunekoetan argiago ikus liteke; 2009ko errenta aitorpenen %15,88 euskaraz egin zen Usurbilen; %18,74 2011koan eta %20,42 2012koan.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte eta Urnietako datuekin alderatuta, usurbildarrek dira alor honetan euskararako joera gehien dutenak. Buruntzaldeko batz bestekoari erreparatu besterik ez dago; %9,95etik %12,34ra igo da bailaran, errenta aitorpena euskaraz egin dutenen ehuneko, 2009-2012 artean.

2013ko egutegia

Autolikidazioa

[2014/04/07-2014/06/25:](#)

Autolikidazio proposamenen onarpena.

Mekanizatua

[2014/04/10-2014/06/06:](#)

Errenta aitorpen mekanizatutarako hitzorduak eskatzea (autolikidazio proposamena onartu nahi ez dutenek, apirilaren 15era arte itxaron beharko dute).

Gainerakoak

[2014/04/11-2014/06/25:](#)

Gainerako errenta modalitateak aurkeztu eta onartzea. Informazioa: 902 100 040 gipuzkoa.net/ogasuna/errenta/

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI
24 h
USURBIEN
677 37 34 66 | Joxe
943 36 21 78 | Etxabe

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.com web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean... Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

www.noaua.com



noaua usurbildarren zerbitzura

HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO
2012, 2013 eta 2014 urteetan jaiotako haurrei zuzendua

- **MATRIKULA EPEA:** apirilaren 7tik 11ra eta apirilaren 28tik maiatzaren 7ra Kalezarren
- **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -16.30*
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- **HITZORDUA:**
943 37 40 61 telefonoan 9.00etik 12.30etara
- **ATE IREKIEN EGUNA:** maiatzaren 5ean, 17.00etan euskaraz eta 18.00tan gaztelaniaz



OSASUN HEZIKETA



ELIKADURA EKOLOGIKOA



JANTOKIA



ZERBITZU PEDAGOGIKOA GURASO ESKOLA



EKIMEN BEREZIAK



© 943 374 061

“Askotan bihotzarekin irabazten du”

Usurbil Kirol Elkartearen jubenilen taldean jokatzeko zebilen, beste usurbildar baten, Martin Larrañagaren eskutik, Bera Bera taldera joateko gonbita luzatu ziotenean. Pentatzeko tarte hartu zuen, eta azkenean baietz, Donostiara joango zela. 2012tik garai oparoa bizi duen eskubaloiko taldeko kidea da. Kopa irabazi berri dute, eta orain, lidergo sendoa izateak ematen dien aukera guztiak baliatuta, Ligaren bila doaz. Euren esku dago garaipena, une hunkigarriak bizitzen ari den taldeko kide Esther Arrojeria Arantzazistrokeren esanetan. Kalezartarrak topera aprobe txatu nahi du, Bera Bera taldekoekin bizitzen ari den esperientzia.

NOUUA! Kirolari batek hartzen al du garaipena ospatzeko tarte?

Esther Arrojeria Arantzazistroke: Gehiegi ez, egia esan. Garaipen egunean, gaueko haiketetan iritsi ginen Donostia-ra. Biharamunean Aldundian eta Donostiako udaletxean hitzordu bana genuen. Egia esan, atera ginen, Donostiatik buelta bat eman genuen baina goiz erretiratu ginen.

Kopako finalean, lehia estu samarra izan zenuten?

Lehen zatiaren hasieran atzetik joan ginen. Hiru goleko tarte atera ziguten. Baina gero erreakzionatzen jakin eta oso parekatuta ibili ginen. Bigarren zati hasieran ere bai, baina gero bukaera aldera tartetxo bat atera genuen. Horri esker, azken goletan garaipena ospatzeko aukera izan genuen, partida amaitu aurretik.

Denak elkarririk besarkatzen, elkarririk eskuak ematen, hor hasi zen garaipeneko ospakizuna.



“Ez nuen espero Kopako final bat jokatzeko halako aukera izango nuenik”

Esther Arrojeriak lehen urtea du Bera Bera senior taldean eta Kopa irabazi berri du.

Laugarren Kopa taldearentzat. Zuretzat?

Neuretzat lehenengoa, debuta izan da aurtengoa, esperientzia guztiz berria eta oso hunkigarria. Egia esan, hasteko espero nuena baino askoz minutu gehiago jokatu nituen. Amets batean bezala nengoen, ez nuen espero Kopa bat jokatzeko halako aukera izango nuenik. Niretzat izugarriko esperientzia izan zen.

Garaipenetara ohituta dagoen talde gisa jaso duzue Kopa? Edo lehenengoa balitz bezala?

Lau kopak irabazi dituen talde kide bakarra dago Bera Beran. Eta dioenez, laurak oso emozio handiarekin jaso dira.

Baina noski, bakoitza berezia da bere neurrian. Irabazteaz inoiz ez zara aspertzen, orduan denak izugarriko ilusioarekin lortu dira.

Zerk eraman du Bera Bera lorpen honetara?

Lehiakortasunak. Kantxa atera eta partida garrantzitsuetan, atera eta badakigu egin behar dugula. Askotan joko aldetik gauzak ez direnean ateratzen, ez zaudenean hain gustura, askotan bihotzarekin irabazten dira partidak. Talde honek ezaugarri hori badu, eta horrek behintzat, badu garaipenaren eragina.

Lan asko dago garaipen bakoitzaren atzean

NOUUA! Hemendik aurrera zer duzue?

Esther Arrojeria Arantzazistroke. Orain Liga irabazteko beste komeria batzuk egongo dira. Ligan lider gaudela, baina bigarren taldea bi puntutara eta hirugarrena hiru puntutara dugu. Maiatzean amaituko dugu Liga. Zazpi partida geratzen zaizkigu. Neurketok beraz, finalak bezala izango dira. Denak, irabazi beharrekokoak.

Oraingoz behintzat ona duguna da, gure esku dagoela liga irabaztea. Beraz gauzak ahalik eta ondoen egingen saiatuko gara, iaz bezala, garaipena Donostiara ekartzeko.

Lidergo sendoa duzuelako, aurkariak beldurtuta al dituzue?

Ez dakit. Badakit bigarren eta hirugarren sailkatuek euren aukeretan sinesten dutela. Ziurrenik ez dute euren partidetan huts egiterik egingo. Beraz guk geurea egin behar dugu. Aurkarietaz ahal dugun neurrian ahaztu, gure lana ondo egin, guri gusztatzen zaigun eskubaloia jokatu, eta hala, ia lortzen dugun garaipena.

Kanpora begira txapelketak erraz irabazteko irudia izan dezakezue agian, presio puntua al da zuretzat?

Kanpotik badirudi hori dela ematen

dugun irudia, iaz dena irabazi baino nuen. Aurten ere bide berdinetik goaz. Baina atzetik lan asko dago barruan. Badakigu lortu duguna lortzea zenbat kostatzen zaigun, ez da batera erraza izan. Eguneroko lan handia dago hor. Horregatik, badakigu gure lana benetan baloratu behar dugula.

Garaipen gehiagoren bila beraz?

Saiatuko gara, ahal bada bai behintzat. Iaz hiru titulu lortu ziren, aurten bide berdinetik goaz. Liga falta zaigu. Hurrengo urterako gogo berdinarekin jarraitzen dugu, edo gehiagorekin. Eta ilusioarekin.

“Partidak dira partidak”

NOAUA! Zuretzat debuta izan da denboraldi hau?

Esther Arrojeria Arantzazistroke. Iaz neurketa bat edo beste jokatu nuen, taldekide bat belaunetik operatu behar izan baitzuten. Baina aurten guztiz sartuta egon naiz taldearen dinamikan. Aurten beste lesio batzuk izan dira nik jokatzen dudan postuetan eta partidetan jokatzeo aukera asko izan ditut. Alde horretatik, aurtengo denboraldia debuta izan da niretzat.

Usurbildik Bera Berarako jauzia nolakoa izan zen?

Belauneko lesio larri batetik nentorren. 2012ko udan ginela, Martin Larrañaga etorri zitzaidan komentatuz, Bera Beratik abisua jaso zutela, ni hara joateko interesa zutela. Denbora pixka batean pentsatzen egon ostean, aukera hau ezin nuela galdu eta Bera Berara joatea erabaki nuen. Ebakuntza egin berria zidaten. Bera Bera taldera joateak ordea, neure errekupeperazioa, kantxetara bueltatzea suposatu zuen. Aldaketa handia izan zen, entrenamen-



Esther Arrojeria eta Martin Larrañaga, Kopa eskuetan.

2012KO UDAN

“Bera Bera taldera joatea aldaketa handia izan zen. Entrenamenduak, konpromiso maila... Baina egokituz joan naiz pixkanaka, eta oso gustura nabil”

du saioen erritmo eta teknika aldetik oso desberdinak ziren Usurbilgo saioak eta Bera Berakoak. Entrenamendu egunak ere han askoz gehiago dira. Beste konpromiso maila batekin joan behar zara. Baina

egokituz joan naiz pixkanaka, eta oso gustura nabil.

Azken bizpahiru urteok historikoak izaten ari dira klubarentzat ezta?

Beti esan dute atzetik lan asko egin dela eta orain ikusten ari direla, aurretik eginiko lan horren guztiaren emaitza. Egia esan, azken bizpahiru urteotan Bera Bera taldea goian dago, ez da jaisten. Urte askotan hala jarraitzea espero dugu. Saiatuko gara behintzat.

Es kubaloiak, erizaintza ikas-

**ketak bigarren mailan uzte-
ra behartu al zaitu?**

Oraingoz behintzat ikasketei garrantzia berdina ematen jarraitzen dut eta ez dut inolako arazorik izan. Klaseak goizetan izaten ditut eta arratsaldetan entrenatzen dugu. Ikaste-ko uneetan denbora hobeto kudeatzen ikasi behar duzu. Baina azkenean egokitzea, zure esku dago. Nik behintzat ez dut arazo gehiegirik izan.

**Bera Berakoa, epe luzera en-
fokatzan duzun ibilbidea
da? Edo unean unekoa bizi-
zen duzu?**

Oraintxe bertan, momentuan momentukoa bizitzen ari naiz. Oraingoz hor nago, espero dut hurrengo urtean ere hor jarraitzea. Neure aldetik ahal dudan guztia egingo dut. Esan bezala, oso gustura nago eta esperientzia hau, ahal duan gehien aprobetxatu nahi dut.

Luzaroan mantentzen bada, askoz hobeto neuretzat. Oraingoz ez dut planteatu ere egiten eskubaloia uztea, hor jarraituko dut.

“Partidak ikustera etorri izan direnak zaletu egin dira”

**NOAUA! Emakumeen kirola sus-
tatzeagatik zoriondu dute zuen tal-
dea. Zuen bezalako garaipenek
zer ekarpen egiten diote emaku-
meen kirolari?**

Esther Arrojeria Arantzazistroke. Egia esan neure ustez ez gara berdintasunera iritsi. Emakumeek hedabideetan ateratzeko, badirudi zerbitu irabazi behar dutela. Gu saiatzen ari gara, garaipenak lortzen ari gara. Eta espero dugu horrekin, emakumeen kirolari laguntza gehiago ematea, gaztetxoak eskubaloira erakartzera, eta lehen eskubaloiarekiko inongo interesik ez zuenari interesa piztea. Eta horrek eskubaloia bultzada ematea, jendea neurketak ikustera ere era-



kartzea. Partidak ikustera etorri izan direnak zaletu egin dira.

Gizonen kirol partiden aldean, bada desberdintasunik eta horrek ere bere erakargarritasuna du. Bultzatu behar da, eta espero dut inoiz berdintasunerantz pausoak ematea.

**Nola bizi duzue egunotan den-
ahotan egote hori?**

Taldearentzat positiboa da, ezkutututa egotera nahiko ohituta baikau-
de. Telebistan kiroletan, Bera Bera ia ez da aipatu ere egiten. Zerbait irabaztean oihartzun hori ematen die-

tenean guretzat pozgarria da, ez azkenean gure lana errekonozitua dela sentitzen dugu. Garaipenak lortzen jarraituko dugu edo horretan saiatuko gara, komunikabideek gure berri eman dezaten.

**Garaipen batek konplexuago egi-
ten du hurrengo denboraldia?**

Kopa honetara faborito gindoazen eta azkenean zure papera barneratu behar duzu, faborito izatearena, baina gu beti saiatu izan gara erakusten pistetan, benetan zergatik garen faboritoak. Azkenean horrek ez du karga bat izan behar, indarra ematen digun aspektu bat da, hurrengo urtean ere berriro berdina lortzen saiatzeko.

2013ko balantzea eta 2014rako planak aztertu ziren NOAUA!ko Batzar Nagusian

Astelehen honetan, Potxoenean gure hitzordua NOAUA! Kultur Elkartearen bazkideok: 2014ko Batzar Nagusia. Jende asko ez zen batu, hori ez zen nobedadea izan. Baina izan zen berrikuntzarik. Zuzendaritza taldean kide gazteak batu dira eta lehendakari kargua ere berri egin da. Aurrerantzean, Idoia Torregarai hartuko du Ana Aizpuruak utzi duen lekukoa.

Ohi bezala, 2013ko balantzea aurkeztu zen lehenbizi eta 2014ko egitasmoak azaldu ziren segidan, NOAUA! Kultur Elkartearen Ohiko Batzar Nagusian.

Argitalpenen arloan, astekaria sendotu eta noaia.com berritza izango dira erronka nagusiak. Dagoeneko sarean da noaia.com berriua eta laster emango ditugu aditzera web orriaren inguruko xehetasun gehiago.



Potxoenean egin zen Batzar Nagusia, iragan astelehenean.

Kultur arloan, hainbat ekitaldi bideratu ohi ditu NOAUA!k. Batzuk dagoeneko sustraitu egin dira eta horregatik, 2014an ere, jarraipena emango zaie: Inauteriak, Film Laburrak, Sagastiak Loretan, Plis Plas Txalo ta Jolas, Kulturaldia udazken par-

tean, Santo Tomas azoka abenduan... Herri ondarea ezagutzeko ibilbide batzuk egin dira azken hilabeteetan, arrakasta handiarekin. Jendea ibilbide gehiago egiteko egarri geratu denez, 2014an ere jarraipena emango zaio ekimen honi.

Idoia Torregarai, lehendakari berria

Aspaldi honetan, zuzendaritza talde berbera aritu da lanean. Aurten, kide berriak batu dira NOAUA! Kultur Elkartearen erabaki organoetara. Batzar Nagusiak hala erabakita, Idoia Torregarai izango da lehendakari lanetan arituko dena aurrerantzean. NOAUA! elkartearen zein aldizkariko sortzaileetako bat, UEUko komunikazio arduraduna da gaur egun Idoia Torregarai. Ana Aizpuruak ordezkatuko du. Hala ere, zuzendaritza taldean jarraituko du Ana Aizpuruak, bere onena ematen.

Gazte jendea, zuzendaritza taldean

Idoia Torregarairekin batera, zuzendaritza berriaren jende gaztea egongo da: Ainhoa Aizpuru, Maialen Unanue eta Nerea Bordagarai. Pello Aranburu, Ana Aizpuru eta NOAUA!ko langileekin batera arituko dira lanean.

Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diegu 2013 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2013ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Txartel denak amaitu ziren Gure Esku Dago eguneko afarian

Batukada saioarekin hasi zen joan den larunbateko Gure Esku Dago Eguna. Gauean, afaria eta bertso musikatuaren emanaldia ospatu zen Usurbilgo Gaztetxean. Antolatzaileak gustura dira, ekimenak izan zuen harrerarekin. "Horrelako beste bat egin beharko dugu ba ezta? Ederra giroa larunbatekoa! Eskerrik asko sukaldari, bertsolari, gai jartzaile, musikari... eta hurbildu zineten guztioi! Aupa Usurbil, gure esku dago! Zure esku ere badago!", diote Gure Esku Dago Usurbil lan taldeko kideek, sare sozialen bidez.



Giro ederra sortu zen gaztetxean, bertso-afarian.

326 atxikimendu Usurbilen

Artean, gorantz jarraitzen dute, ekainaren 8ko giza-katean parte hartzeko herritarren atxikimenduek. Usurbilen, Durangotik Iruñeara arteko giza-kateko 400 metro osatzeko, 400 herritar biltzeko erronka jarria zuten antolatzaileek. Dagoeneko 326 metro, 326 herritarren babesak jaso dute. Halere oraindik, bada helburua betetzeko tartea. Gure Esku Dago Egunean, erabakitze eskubidearen aldeko ekimenean apuntatzeko aukera egon zen. Aurrerago ere, izen emateko informazio mahaia gehiagotan jarriko dute. Gogoan izan, metro bat erosi behar du herritar bakoitzak, 5 euroren truke. Honez gain, Gure Esku Dago taldeak neurri guztietako kamisetak atera ditu. 10 eurotan eskura daitezke.

Esker oneko hitzak

"Usurbilgo Gure Esku Dago taldetik eskerrak eman beharrean gaude jende askori, eta horretarako baliatu nahi ditugu lerrook. Mila esker Gure Esku Dago Eguna hain borobila izaten lagundu zeniguten guztiei: Batukada feministari, Usurbilgo eta Akerra gaztetekei, afari goxoa egin zuten Aldapa, Ximio eta Romani eta sukaldaritza eskolako irakasle eta ikasleei, afaria ematen lagundutakoei eta afalostea girotu zuten musikari eta bertsolari.

Ezin genitzake aipatu gabe utzi Aitzaga elkarteak, Atxegaldeko Jai Batzordea, Lontxo Zubiria eta Imanol Azpiroz, besteak beste. Eta nola ez, eskerrik asko etorri zineten herritar guztiei: ez zitzaigun burutik ere

pasa hainbeste lagun elkartuko ginenik bertan. Beste behin ere bikain erantzun zenioten gure deialdiari, eta esker oneko hitzak besterik ez ditugu. Dudarik gabe, bide onetik goazela ikusarazi zeniguten, eta horrek indarra ematen digu aurrera egiteko. Mila esker, bihotzez.

NOAUA!-k utzitako tarte hau aprobetxatu nahi genuke, bide batez, aste honetarako ekitaldiak iragartzeko. Bitan jarriko dugu mahaia: ostira-lean, 19:00etan, eta igande eguerdian. Bukatzeko, gogoratuko duzueenez, otsaila hasieran ekin genion "Baietz 400!" erronkari, eta dagoeneko 326 atxikimendu lortu ditugu. Gutxi falta da, beraz, helburua betetzeko! Mila esker, beste behin ere".

Autobus zerbitzua Usurbildik, mugimendu feministak deituriko manifestaziora

Gure gorputza, gure erabakia gure gorputza, manifestazio nazionala deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak, apirilaren 5erako, arratsaldeko 17:30etan Iruñean. Golem zinemetatik abiatuko da, abortatzeko eskubidearen alde egindako mobilizazioa.

"Aldarrikapenaren erdigunean emakumeon gorputz askeak eta burujabeak jarriko ditugu, baita dagozki-

gun sexu eta ugalketa eskubideak ere, ama izateko edota ez izateko eskubideak barne. Honen bidez, aurre egin nahi diogu PPren proiektu birgogortzaileari, kolpe batez ezabatzen baititu sexu eta ugalketa eskubideei buruzko legeak, diktadura frankistaren garai atzerakoietako abortatzeko praktiketara atzera eginez. Honen bestez, deia luzatu nahi diegu usurbildarrei mobilizazio honetan eta

etorkizunean burutuko diren dinamiketan ere parte hartzera", adierazi dute deitzaileek.

Iruñeara joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbilgo mugimendu feministak. Izen emateko zerrendak, Aitzagan, Txiribogan eta Txirristran jarri dituzte. Iruñeako manifestaziora joan etorria egingo duen autobuserako, martxoaren 29ra arte apuntatu liteke.

EHGAM-en sagardotegiko afarirako lekua beteta

Martxoaren 24a jarri zuten izen emateko azken eguna. Baina lehenago itxi behar izan zuten apuntatzeko epea, plaza guztiak bete baitira. Larunbat honetan, martxoaren 29an ospatuko du Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimenduak (EHGAM), sagardotegiko afaria. Iaz bezala, Arratzain sagardotegian. Aurretik, Usurbilen trikipoteoa antolatu dute;

Martxoak 29, larunbata

18:15 Donostiako Amara Plaza hotelaren ondoko geltokian biltzeko hitzordua. Autobusez Usurbilera.

18:45 Trikipoteoa Txirristratik abiatuta.

20:30 Afaria Arratzain sagardotegian.

01:00etatik aurrera, Kikili-festa Donostiako Dokan, DJ Askea eta DJ On-ek girotuta.

Informazio gehiago: <http://ehgam2010.blogspot.com.es/> edo 667 435 570.

Orientazio akademikoa ikasleentzat

Donostiako Kursaalaren lehen aldiz, DBH eta DBH osteko ikasleentzako orientazio akademikoa bideratzen laguntzeko ekimena antolatu dute, ostiral eta larunbat honetarako, martxoaren 28 eta 29rako. Orduetegi honetan zabalduko dute topagunea:

Martxoak 28, ostirala

9:30-14:00 eta 16:30-19:30.

Martxoak 29, larunbata

10:00-14:00.

Ekimen honetan parte hartuko dute Unibertsitateak, Lanbide Heziketako ikastetxeek, Ikastolen Elkarteak... Erakunde guztiok "stand" bana izango dute Donostiako Kursaalaren.

Musikaz blai, igandera arte

X. Soinurbil Musika Astean murgilduak gaude egunotan. Igandera arte, egunero hitzorduren bat izango dugu urteurren borobileran heldu den ekimenarekin. Tartean, herri eragile desberdinen artean antolatu den kalejira eta etxeko 8 musika talderen kontzertuaz gozatu ahal izango da:

Martxoak 26, asteazkena

18:00 – 19:00 Organoa ezagutzeko aukera Salbatore Elizan, Organoaren Lagunak taldeko kide Joan Luis Atxegaren eskutik. Sarrera doan.

Martxoak 27, osteguna

18:30 Zumarte eta Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako ikasleak biltzen dituen tobera musika eskolen emanaldia, Sutegin. Sarrera doan.

Martxoak 28, ostirala

19:00 Kalejira frontoitik abiatuta. Usurbilgo Kantu Taldea, Zumarte Musika Eskolako Abesbatzak, Trikitilari Taldeak eta Txistulari Taldeak, Hurbilago, Usurbilgo merkatari eta ostalarien elkarteak. Kalejira Tipi-Tapan parte hartzen duten tabernetatik igaroko da. 19:00-21:00 artean edariarekin pintxoak doan. Eta gainera Tipi-Tapako 150 euroko erosketa balearen zozketarako zigiluak lortzeko aukera.

Martxoak 29, larunbata

22:00 Pop-rock taldeen kontzertua frontoian. Ixak-



Zumarte Abesbatza Hondarrribian izan zen aurreko asteburuan. Ikasitakoa Amute auzoko elizan erakutsi zuten, kontzertu batean.

son-ak Zumarteko taldea, Tapiwan Zumarteko taldea, 3P4 herriko taldea, Tapimax Zumarteko taldea, Nesk-Quik Zumarteko taldea, Juanantzoneko okupak herriko taldea, The Hastelehen's Zumarteko taldea, Zappa Zumarteko taldea, Arto2xar herriko taldea, Ganbarakada Zumarteko taldea.

Martxoak 30, igandea

Andoaingo musika banda eta abesbatza Usurbilen: **11:30** Kalejira, Zumarte Musika Eskolatik abiatuta. **12:30** Emanaldia frontoian. Sarrera, doan.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

Tabernariak ere, Soinurbil betean

Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak, Kantu Taldekoekin eta Hurbilago Elkartearekin batera antolatu duten kalejira berezi batek, hileroko lehen igandeetan Tipi-Tapa egitasmoan parte hartzen duten Txiriboga, Aitzaga, Xarma, Txirristra, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun tabernak lotuko ditu ostiral honetan, martxoaren 28an.

Arratsaldeko 19:00etan abiatuko da frontoitik, kantua eta musika uztartuko dituen ekimena. Zumarteko Abesbatzak, Trikitilari eta Txistulari Taldeak bilduko ditu hitzorduek. Baita kantu zaleak

ere. Kantu Taldekoak eta abestera animatzen den orok parte har dezake. Kalejira Kaxkoan barrena ibiliko da, besteak beste, kalez kale, eta tabernaz taberna. Tipi-Tapa egitasmoan parte hartzen duten zazpi edaritegieta geldialdiak egingo dituzte. Eta adi, afalurretik, 19:00-21:00 artean, taberna hauetan edatekoa eskatzen duenak, pintxoak opari jasoko baitu. Tipi-Tapa Txartela eskura baduzue gainera, erronda eskatzerakoan tabernariak erakutsi eta 150 euroko erosketa balearen zozketarako zigilua eskuratu ahal izango duzue.



Joxe Mari Lizaso izan zen martxoko saritua. 150 euroko balea irabazi zuen. (Arg. Iban Perez).



Arrautzekin eginiko zizka-mizkak. Apirilaren 6ko Tipi Tapan, hori emango dute dastatzera.

Helduak aktore, Jubilatut Astean

Oñatiko jubilatut taldea gonbidatu zuen Gure Pakea Elkarteak joan den Jubilatut Astea. Aretoa bete zuen antzezlan eskaini zuten. Emanaldi honez gain, Zumaia txangoa edota osasunari loturiko hitzaldiak antolatu zituzten. Urtero moduan, Aialde-Berri sagardotegian, bazkari eder baten bueltan amaitu zuten Jubilatut Astea.



Oñatiko Jubilatut Taldea izan zen Artzabalen.

Fisika kuantikoari loturiko hitzaldia eta erakusketa

"Jauzi kuantikoa" izeneko hitzaldia, apirilaren 5ean, larunbatez, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Sutegin. Sarrera doan, hitzaldia erdaraz izango da. Bertan, "egunerokotasunean Fisika kuantikoaren eza-gutzak nola erabili eta sendabide kuantikoa zer den azalduko da".

Hitzaldiarekin batera, buda kuantikoei loturiko eskultura erakusketa bisitatzeko aukera egongo da, apirilaren 3tik 6ra, Sutegiko aretoan. Ordutegi honetan: goizez, 11:00-14:00 artean eta arratsaldez, 17:00-21:00 artean.

Informazio gehiago: budacuantico1@gmail.com
Facebook-en, "Buda Cuantico".



Apirilaren 5ean egingo da hitzaldia, 19:00etan Sutegin (irudia: facebook).

Usurbil KE 2. nazional mailako eskubaloit taldea, txapeladun

Sailkapen buruan, garaile amaitu du senior mutilen eskubaloit taldeak. Oraindik lau neurketa jokatzeko dituzten arren, txapeladun ditugu Aitor Arrutik zuzentzen duen taldeko kideak. Erronka potoloa dute orain, esku artean, senior mutilek; 1.nazionalera igotzeko fasea prestatzera baitoaz. "1.nazionala estatu mailako brontzeko txapelketa da, futboleko 2B mailaren parekoa", gogorarazi dute Usurbil Kirol Elkartetik.

Igoera, Usurbilen ospatzeko eskaera

Igoera fasea jokatzeko datak ere finkatuak daude jada; maiatzaren 16, 17 eta 18an ospatuko da. Lekua zehazteke dagoen arren, Usurbil Kirol Elkartetik aipatu txapelketa ezin garrantzitsuagoa, etxean jokatzeko eskaera bideratzekoa da. "Kirol elkarte honek igoera fasea Usurbilen ospatzea eskatuko dio Espainiako Eskubaloit Federazioari, igoera Usurbilen gera dadin", adierazi dute eskubaloit taldeen

Xuban Errazkin txirrindularia, bigarren Egiako lasterketan

Buruntzapiko txirrindulariak 17 urte ditu eta juvenil artean oso denboraldi ona osatzen ari da. Aurreko asteburuan, bigarren amaitu zuen Egiako lasterketan. 85 kilometro zituen lasterketak eta azken 58ak ihesi egin zituen Xubanek, beste txirrindulari batekin. Perurena mendatean ihes egin zuten eta azkenean bigarren izan zen Xuban, Egiako helmugan.



Eskubian, Xuban Errazkin, saria eskuratu berri.



Igoera fasea Oiardo kiroldegian jokatzeko eskaera egin dute Espainiako Federazioan.

bilguneetik.

Senior mutilen 2.nazional mailako taldeak Estatu mailako beste multzoetako txapeladun edo txapeladunorde geratu diren 3 talderen aurka lehiatu beharko du, maiatzeko hirugarren asteburuan.

Arraras-Gorriti, Andatzakoen hurrengo mendi irteera

Apirilaren 13an, igandez. Martxoan eginiko Belate-Arraras ibilbidearen jarraipena egitea proposatzen diete mendizaleei. 21 kilometrotako txangoa. Joan etorria autobusez egingoenez, aurrez eman beharko da izena, apirilaren 9a baino lehen, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak Kutxabanken duen kontu zenbaki honetan: 2095 5069 07 1068489805. Andatzako bazkideek eta langabetuek 12 euroko ordainketa egin beharko dute, 15 euro gainerakoek. Plazak mugatuak izango dira. Lehenetsuna, Andatzako kideek izango dute.



Apirilaren 13an izango da irteera.

Eskubaloia Oiardon

Martxoak 29, larunbata

9:15 Benjaminak, LH 3:

Mini eskubaloiko topaketa.

10:00 Benjaminak, LH 4:

Mini eskubaloiko topaketa.

11:00 Alebin mutilak:

Langile A-Udarregi 5B

11:00 Alebin mutilak:

Langile B-Udarregi 5A

12:30 Infantil neskak:

Udarregi A Usurbil-Aloña Mendi A

16:00 Infantil neskak:

Udarregi C Usurbil-Aiala D Zarautz

17:30 Kadete mutilak:

Usurbil K.E.-Ereintza Aguaplast

19:15 Senior mutilak, 2.nazionala:

Ucin Aluminio Usurbil-Escolapios

Martxoak 23, igandea

10:00 Senior neskak:

Usurbil K.E.-Errotabarri

11:30 Senior mutilak, 1. territoriala:

Usurbil K.E.-Eibarko Haritza

Futbola Haranen

Martxoak 29, larunbata

9:30 Alebin neskak:

Udarregi 5B-Udarregi 5A

9:30 Alebin neskak:

Udarregi 6B-Udarregi 6A

11:00 Infantil mutilak:

Usurbil FT-Orioko

13:00 Kadete neskak:

Hernani Usurbil CD-Luberri STL

15:30 Jubenil mutilak:

Usurbil FT-Hondarribia F.E.

17:30 Beterano mutilak:

Usurbil FT-Orioko

Gipuzkoako selekzioarekin

Usurbil Kirol Elkarteko bi kide gonbidatu ditu Gipuzkoako eskubaloit selekzioak, igande honetan, 9:45etatik aurrera Donostiako La Salle Kiroldegian egingo den entrenamendu saiora; Julen Nazabal eta Koldo Diaz.

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

ETXEBIZITZA

Salgai

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berritua. Tel. 699 680 265. 135.000€.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinea. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatuan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sai-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

lean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera eman du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Gela bat alokatzen dut. Prezio interesgarria. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570€. 2 logela, 2 hila-beteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hila-beteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Lasarten, Zumaburu auzoan, lokal bat alokatzen da. 150€ hilabetean. Erreforma txiki bat behar du. Tel. 687 348 223.

"Logela batalokagai. 250 euro + gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarriletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gasu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastuak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

MOTORRA

salmenta, garajeak

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratuak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txarumunto auzoan. 15 metro karratuko. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa. Telefono zenbakia: 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko.

Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketara industrialearan. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketara lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularak emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxillergoan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Erizaintzako zerbitzuak. Sukaldea eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeko garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketara egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest

nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeko garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Iزارo)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Orduetegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaintzeko nitzuke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzako graduatua naiz eta gaixodunden pertsonen erizaintzako emateko prest nengo. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko zein klase partikularak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza graduatu bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakasuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaintzeko nitzuke goizez zein arratsaldean. Irakasuntzako diplomaduna. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketara eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.



Happy Birthday Annie!
Muxu potolo

bat Daddy, ama eta Unairen partez.



Zorionak Ariana!!!
Martxoaren 27an 7 urte beteko dituzu.

Muxu potolo bat Agiñako ikasle eta irakasleen partetik.



Zorionak Helene!
Zorionak Helene!!!
Martxoaren 27an, 9 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partez.

Heriotzak

Mª Angeles Aristegi Mindegia
77 urterekin hil zen martxoaren 17an, Aginagan



Javier Uranga Olaiola
77 urterekin hil zen martxoaren 16an, Usurbilen



Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formalata etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademiaren lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrek emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein

lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketarako. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak asteleheneretan 18:00-20:00)

BESTELAKOAK

Jertse urdin iluna besoetan marra pare bat grisak dituena besoetan eta txapelarekin, Zumarte kanporean galdu dit. Norbaitek aurkitzen badu, Noaualko egoitzara ekarri.

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Mahaspildegia elkartean bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kilo. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpundu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko su salgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talle, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Telebista salgai, Sony. Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo inbaxurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arretra	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak martxoak 27-apirilak 6

Osteguna 27	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Ostirala 28	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata 29	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 30	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena 31	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astearte 01	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Asteazkena 02	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte

Osteguna 03	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola kalea, 9 Lasarte
Ostirala 04	ORUE Jaizkibel 2. Lasarte
Larunbata 05	RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte
Igandea 06	RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda martxoa

28 ostirala

- Elkarretaratzea, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde. 20:00etan Mikel Laboa plaza.
- X. Soinurbil Musika Astea: kalejira. 19:00etan Kaxkoan.

29 larunbata

- EHGAM-ek antolaturiko sagardotegiko afaria. 18:45ean Trikipotea Txirriestratik abiatuta. 20:30ean Afaría Arratzain sagardotegian.
- X. Soinurbil Musika Astea: Rock-Pop taldeen kontzertua frontoian. 22:00etan.

30 igandea

- X. Soinurbil Musika Astea: Andoingo Musika Banda eta abesbatza kalejira. 11:30 Kalejira herrian zehar. 12:30 Emanaldia frontoian.

Logotipo eta lelo premian da Kilometroak 2015 ospakizuna

Honez gero jakingo duzue: 2015ean Kilometroak jaia Usurbilen ospatuko da. Eta aurreko astean iragarri genuen moduan, leloa eta logotipoa topatzeari ekin dio Udarregi ikastolak. Baina egun gutxi geratzen dira, lanak aurkezteko epea martxoaren 31n amaituko baita. Zuen proposamenak idazkaritzan utzi ditzakezue edota e-posta bidez igorri helbide honetara: usurbilkilometroak@udarregi.com. Bururatzan zaizkizuen ideiak lantzerakoan, honakoa aintzartat hartzea eskatzen dute Udarregitik: "euskara! eta herriarekin elkarlanean, auzolanean!".

Haur Hezkuntza, auzolan premian

2014-2015 ikasturtean Haur Hezkuntzako espazioen antolaketan berri bat egin eta gela horietan egitura berri batzuk jartzeko laguntza beharrean dira Udarregi ikastolan. Zurgin, diseinatzaile, bri-



Lanak idazkaritzara eraman edo emailaz bidali behar dira: usurbilkilometroak@udarregi.com

kolaje zale eta abarren bila dabilta.

Laguntzeko prest dagoen orok, eman dezala izena ikastolako idazkaritzan. Udarregitik berri eman dutenez, auzolan esperientzia honetan parte hartuko dutenak "ez dira bakarrik arituko, izan ere, Mondragon Unibertsitateko aholkularien gidaritza eta aholkularitza, ondoan izango dugu".

Ogigintza tailerra Agerialdeko jangelan

Martxoaren 27an, 18:00etatik aurrera Agerialdeko jangelan. Aitziber Elortza herritarrak gidatuko du, oinarritzko ezagutzak ikasteko aukera emango duen saioa. Etumeta-AEK euskaltegiak antolaturiko ekimen honetan parte hartzeko aurrez eman behar da izena. Prezioa: 2 euro. Tupper bat eta espatula bat eraman. 607 609 379.

Umea besoetan erosoago eramateko ikastaroa

Seme alabak erosoago emateko modurik ezagutu nahi baduzu, akaso interesekoa izango zaizu Baratze dendan antolatu duen tailerra. Fularrak eta bandolerak egoki nola erabili irakatsiko da. "Ume-eramailek baduzue, ekarri eta bakoitzaren ezaugarriez hitz egingo dugu", dio dendatik jaso dugun oharra. Larunbat honetan, Baratze denda ekologikoan, 11:00etan hasita.

Datozenak

Santixabeletako Jai Batzordearen bilera, martxoaren 31n

Martxoaren 31n astelehena egingo da Jai Batzordearen bilera berri bat, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Aurtengoan, Santixabel jaiak, uztailearen 1etik 6ra ospatuko dira.

"Faustinorekin munduratz", antzerkia haurrentzat

Apirilaren 2a Haurrentzako Liburuaren Nazioarteko Eguna izango da eta Sutegi udal liburutegiak antzerki saio batekin ospatuko du, 18:00etatik aurrera: "Faustinorekin munduratz". Lau urteetan zehar, Eneko Etxebarrieta munduari bira ematen ibili zen. Orduko abentura eta esperientzetan oinarritzen da antzezlanak.

Eneko eta Faustinok, bere txirringak, haurrak telebista utzi eta beraiekin munduratu daitezten gonbidatuko dituzte: mundua pedalei eragiten ezagutzeko.



48 urteko haurrentzat egokia da antzezlanak.

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra

TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



herritarrekin
martxan en marcha



 *Gipuzkoa*
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



PARTE HARTU

ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean
Mugi/Lurraldebus txartela kargat-
zeko 20 euroko bonoak zotz
egingo ditugu.

 *Gipuzkoa*
BERRIA

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

BILERA HERRITARREKIN
APIRILAK 7, OSTIRALA, 18:30ETAN POTXOENEAN
USURBIL

OSASUN GIDA 2014



USURBIL
OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

50€-ko
BALEA

DSQUARED, TOMFORD,
DIOR eta ARMANI markako
monturetan



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxe: 943 370 306

Kima
MASAJE LEKUA



• Kirol masajea
• Masaje terapeutikoa
• Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

Puntapax 6B, behea ezkerre - Tel. 943 11 09 54

- ✓ Kiropodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia



Iturraldebotika
Tomas Iturralde Botika
108/12 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatikokoak

Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBI • 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL